

Kutxabankek Iker Arteagabeitia izendatu du finantza-zuzendari

- **2009an finantza Erakundeak sartu zenetik, Finantzen Erregulazioko eta Ekonomia Kontroleko eta Arriskuaren Kontrol Orokorrekoa arduraduna izan da, eta 2014tik Kudeaketa Kontrolaren alorrekoa**

2021eko uztailaren 15ean. Kutxabanken Administrazio Batzordeak, Izendapenen Batzordeak proposatuta, **Iker Arteagabeitia Erakundeko finantza-zuzendari** hautatu du, aurre-erretiroa hartu duen Jose Ramon Blazquez ordezkatzuz.

Arteagabeitia 2009az geroztik Erakundeko lankidea da, eta Taldeko **finantzen erregulazioko eta ekonomia kontroleko arduradun** izan da, **arriskuaren kontrol orokorrekoa** eta 2014. urteaz geroztik **Kudeaketa Kontrolaren alorreko arduraduna**.

Deustuko Unibertsitatean Enpresen Zuzendaritzan eta Administrazioan lizentziaduna da, eta Zuzendaritza Aplikatuko Masterra. Bi graduondoko ditu, Alcalako Unibertsitatean Auditoretzan eta Kontabilitatean Espezializatua da, eta Arriskuaren Profesionalen Erakunde Orokorrean Finantza Arriskuaren Zuzendaritzako titulua du.

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialeko eta Espainiako Kontuen Zinpeko Azterlarien Erregistroko kidea da. Iker Arteagabeitiak duela 20 hasi zuen bere ibilbide profesionala Deloitte etxean, ipar-isuriko finantza-erakundearen Arriskuen Zerbitzuko arduradun zela. Auditoretzako zigilu honetan Prezioen eta Errentagarritasunaren Zuzendaritzako kudeatzailea izan zen, beste zenbait ardurarekin batera.